



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK ASKARTZA SASKIBALOI
TALDEAREN IZENEAN JARRITAKO ERREKURTSOARI
BURUZKOA. AURREKO ERABAKIA ERREBOKATZEA ETA
BERRI BAT HARTZEA ESKATZEN ZUEN**

Espediente-zenbakia: 23/2015.

AURREKARIAK

LEHENA.- Batzorde honek, 2015eko irailaren 10ean egindako bilkuran, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Askartza Saskibalo Taldearen izenean Euskal Saskibalo Federazioaren Apelazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 21ean emandako 14. zenbakiko epaiaren aurka jarritako errekurtsoa ezestea ebatzi zuen.

BIGARRENA.- Zigortuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri eta demanda bat egin zuen, eta, alegatuetako batean argudiatzen zuenez, aplikatutako zigor-agindua ez zen egokia, aplikatutako aginduaren testua oker transkribatuta baitzegoen. Hau da, "ekintza horrek medikuaren asistentzia **edo** tratamendu medikoa behar duten lesioak eragiten dituenen" zioen lekuan "ekintza horrek



medikuaren asistentzia **eta** tratamendu medikoa behar duten lesioak eragiten dituenen” esan behar zuen.

HIRUGARRENA.- Akatsaz ohartuta, Administrazioak abokatuak – aldi berean espedientearen txostengilea zenak eta denak, Batzorde honen barruan– prozedura etetea eskatu zuen Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 4. Epaitegian –hots, auzian ahalmena duen Epaitegian–, egindako alegatuak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari helarazteko eta haren erabakipean jartzeko.

LAUGARRENA.- Hilaren 3ko Antolaketarako Eginbide bidez, prozedura hogeitun eguneko epe batez etetea erabaki zuen Epaitegiak, “demandatutako Administrazioaren defendatzaileak Administrazioari aurkaratu zen administrazio-jarduna zuzenbidearen arabera ez izateari buruz duen iritzia jakinaraz diezaion”.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Arestian adierazi dugunez, Batzorde honek **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Askartza Saskibaloia Taldearen izenean jarritako errekurtsioa ezestea ebatzi zuen, eta ezespenez horrek jatorrizko zigorra berresten zuen (“580. zenbakiko lizentzia duen Askartza taldeko jokalaria urte 1eko zigorra ezartzea aurkari bat erasotzeagatik, diziplina-araudiaren 36 A artikulua arabera –



31. artikuluari dagokionez–, eta taldea 201 €-ko isunarekin zigortzea –akats baten ondorioz, 20 € adierazi zen–, diziiplina-araudiaren 22. artikuluaaren arabera”).

BIGARRENA.- Egiaztatuta geratu da, halaber, aplikatutako aginduaren testua –zigorra tipifikatzeko erabakigarria izan zena– oker transkribatu zela, kontuan hartu beharreko bi zirkunstantziak ez baitziren alternatiboak, konkurrenteak baizik; hori dela-eta, komeni da, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 105.1 artikuluaaren babesean, hartutako ebazpena errebokatzea eta berri bat hartzea, aplikatu beharreko legezko parametroen arabera.

HIRUGARRENA.- Arau-haustearen gertakarietan aldaketarik izan ez dela kontuan hartuta, eztabaidatu beharreko gaia gertakari horiek zigorra merezi duten ala ez finkatzea da.

Ildo horretan, frogatuta geratu da errekurtsogileak beste jokalaria bati ukabilkada bat eman ziola, eta jokalaria horrek Quirón ospitale-taldera jo zuela, bertan X izpiko plaka bat egin ziotela eta hausturirik ez, baina traumatismoa bazegoela ikusi zela.

LAUGARRENA.- Errekurtsogileak adierazten zuenez (aztergai dugun ebazpenaren hirugarren zuzenbideko oinarria, bigarren paragrafoa), "egokiena 580. zenbakiko lizentzia duen jokalaria 36a



artikulua aplikatu ordez 37a artikulua aplikatzea izango litzateke, arrazoi beragatik zigortutako beste bi jokalariekin egin den bezala, gure ustez bidegabekeria baita jokalaria batek argazki bat edo borondatezko asistentziaren parte aurkeztu izanak (lesiorik ez zegoela zioen parteak) hain alde handia eragitea batzuei eta besteei aplikatutako zigorren artean".

BOSGARRENA.- Errekurtsogileak arrazoia du bere proposamenean, eta, beraz, haren eskaera onartu egingo da, aplikatu beharreko agindua Euskal Saskibalo Federazioaren Diziplina Araudiaren 37 a) artikulua dela uste baitugu. Artikulu horrek honako hau dio: "**37. artikulua.-** Arau-hauste larritzat hartuko dira, eta hilabetetik urtebetera bitarteko zigorra edota lau partida edo jardunalditik hogeita laura bitarteko zigorra eta/edo taldearentzako 41 €-tik 200 €-ra bitarteko isuna aplikatuko zaie.

A.- Eraso-ahalegina, gauzatu gabeko eraso eta arbitro taldeko kideak, zuzendariak, kirol-agintariak, taldekideak, entrenatzaileak, ikusleak edo, oro har, edozein pertsona mehatxatzea, hertsatzea, bultzatzea edo haien kontrako ekintza laidogarri oro egitea, betiere jokabide hori 36-A artikuluan jasotakoa ez bada".

SEIGARRENA.- Lehiaketa Batzordeak egun berean gertatutako istiluei lotuta beste hiru jokalaria arau-hauste mota beragatik (37a), 31. eta 22. artikuluek zigortu zituela, baina zigor mota desberdinak aplikatu zituela kontuan hartuta, honako hau erabaki da, gertakarien larritasuna dela-eta: 580. zenbakiko lizentzia duen Askartza Claret



Taldeko jokalariari 12 jardunaldiko zigorra ezartzea aurkari bat eraso izanagatik (Diziplina Araudiaren 37 a) artikulua araber, 31. artikuluari dagokionez), eta taldea 120 €-ko isunarekin zigortzea, Diziplina Araudiaren 22. artikulua araber.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek

EBATZI DU

1.- 2015eko irailaren 10ean egindako bileran hartu zen erabakia errebokatzea.

2.- Errekurtsoa partzialki baiestea eta, horren araber, errekurtsogileari 580. zenbakiko lizentzia duen Askartza Claret Taldeko jokalaria aurkari bat erasotzeagatik 12 jardunaldi gabe uzteko zigorra ezartzea, Diziplina Araudiaren 37 a) artikulua araber –31. artikuluari dagokionez–, eta taldea 120 €-ko isunarekin zigortzea, Diziplina Araudiaren 22. artikulua araber.

3.- Administrazioaren abokatuak erabaki hau Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 4. zenbakiko Epaitegiari jakinaraztea (222/2015 zenbakiko prozedura laburtua).



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 22a

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA